

## LAMIA ESKALEA ETA BERE ZIGORRA

*Kortezubiko Matias Aranaz-ek eta Nabarnizko Tomas Kobeagak kontatuta*

Garaiko andrea burduntzian okela erretan zegoen, eta etorri zitzaion lamiña, apoa burduntzian zuela, eta okela jotzen zuen apoarekin. Gero, esan zion Garaiko andreari:

- "Zu koipetsu eta ni kakatsu".

Gero Garaiko andreak esan zion:

- Egon zaitez geldi!

Ostera ere egiten zion lamiñak.

Andreak gero burduntzia begitik sartu zion.

Laminak galdetu zion Garaiko andreari:

- Zein da zure izena?

Andreak erantzun zion:

- "Ni neuk".

Lamiña joan zen bere tokira negarrez, eta bere lagunek galdetu zioten:

- Nork egin dizu?

- "Ni neuk" -esan zien.

- "Zuk egin baduzu, nork zuen zer ikusi?" -besteek.

Handik galdu egin omen zen lamiña.

